



MUSIKA

# Show must go on

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Zalantzarik gabe, COVID-19aren pandemiak gure bizitzak nahastu ditu maila guztietan. Egia da, halaber, apur bat friboloa dela gaitzak jo ez gaituenak kekatzea hain aipatua dugun “normaltasun berriak” gure bizimoduari ekarriko dizkion nahasmenduez. Hildako kopuru handiaren alboan, ondorioak dituzten gaixoen eta minez betetako familien ondoan, gure bizitza kulturalak epe labur edo ertainean izango dituen galerei buruz hitz egiteak gorritu egiten nau, nolabait.

Baina egia da, baita ere, bizitzak aurrera jarraitzen duela, eta kulturarik gabeko bizitza, eta batez ere musikarik gabekoa, bizitza gutxiago dela, edo kalitate txarragoko bizitza dela.

Horregatik guztiagatik, musikaren ikuspegitik etorkizun itxaropentsua azaltzen digutelako, txalogarriak dira hainbat erakunde izaten ari diren ekimenak. Gure inguruan egiten ari diren ekimenak nabarmendu behar ditut, noski.

Maiatzaren 30ean hasi eta uztaiaren 18ra arte, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertu ziklo txiki bat eskainiko du ETB2tik eta, ondoren, Internet bidez. Lehenengo emisioak sentimendu nahasketa eragin zigun. Alde batetik, ezin dut ukatu halako atsekabe batek hartu ninduela publikorik gabeko aretoa ikustean eta musikariak behar bezalako distantziak mantenduz. Pandemiak dena inbadituko balu bezala da. Baina egia da, baita ere, musikalki emankizuna primeran hartu genuela. Berpizkunde bat izan zen, lehorte



EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAK UTZIA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa ETB2n, maiatzaren 30ean, kontzertua emititzeko entseatzen.

hilabete hauen ondoren. Azpimarratu behar da, bestalde, Europako orkestra gutxi ari direla lanean. Adibidez, Amsterdamgo Concertgebouw Orkestrak ekainaren 3an eta 5ean bi kontzertu *streaming* bidez emateko asmoa zuen, Gustavo Gimenez zuzendaritzapean. Baina kasu gutxi dira.

Horrez gain, operaz ere gozatu dezakegu, OLBEren unerik onenak ikus ditzakegulako, elkarte horrek bere webgunean egiten dituen emisioen bidez. *OLBE etxean* izeneko ekimen honek operako une antologikoak eta dibul-

gazioko hitzaldiak helarazi nahi dizkie operazaleei.

Harrera oso ona izan duen ekimena da, eta hilabete hauetan programaturako operen ezeztapena arintzeaz gain, ziur zale gehiago sortzen lagundu duela.

Pixkanaka erritmo musikala berreskuratuko dugu, baina pazientzia izan beharko dugu. Udara begira, Donostiako Musika Hamabostaldiak kalitatea formatu txikian eta bertako artistekin eskainiko digu. Programaren iragarpenaren zain geratzen gara. Txikia izan arren, mundu bat irudituko zaigu. ●